

Fagor Industrialek David Arellanori, Eme Be Garroteko sukaldearen arduradunari, sukaldari onenaren saria eman dio Talento Gastro sarietan

- **Sariak 40 urtetik beherako profesionalei euren lana aitortzen die, eta Gipuzkoako gizartean hain garrantzitsua den sektorean erreleboa hartuko duen belaunaldi berriaren indarra azpimarratzea dute helburu.**
- **Chefak Eme Be Garroten egindako lanaren aitortza jaso du beste behin; izan ere, azaroan lehenengo Michelin Izarra lortu zuen.**

Donostia, 2019ko martxoaren 12a – Fagor Industrialek, ostalaritzarako ekipamenduetan, sukaldaritza kolektiboan eta garbitegian liderra denak, Euskadiko gastronomiarekin duen konpromisoa berretsi du Donostiako Maria Cristina hotelean gaur egin den Talento Gastro sarien bigarren edizioa babestuta eta sarietako bat emanda.

Ostalaritzako onenetan gazteenek euren lanaren aitortza jaso dute sarietan, etorkizun hurbileko gastronomiaren izen handien artean lekua hartzen ari diren garai honetan. Sariak 9 kategoriatan banatu dira: sukaldari onena, sommelier onena, aretoko arreta onena, postregile onena, parrilan onena, produktua lantzen onena, koktelak egiten onena, pintxo barra onena eta talentu ekintzaile onena.

Mario Lopezek, Fagor Industrialeko Zuzendari Orokorrak, sukaldari onenaren saria eman dio David Arellanori, Eme Be Garrote sukaldearen arduradunari.

Chef gazteak hilabete gutxitan bigarren aldiz jaso du bere lanaren aitortza, izan ere, azaroan Eme Be Garrote jatetxeak lehenengo Michelin Izarra jaso zuen. Eme Be Garrote Donostian dagoen jatetxe dotorea da, 2013an betiko sagardotegi izatetik estilo garaikidea izatera pasatu zena eta ingurune naturalean kokatuta dagoena.

Jatetxea Fagor Industrialek hornitutakoa da, eta instalazioetan fry-topak, indukzioko sukaldeak, ohiko altzariak eta azken generazioko labea dauzkate.

“Garrantzi honetako sariak indartu egiten dute sektoreari ematen zaion bultzada ekonomikoa, turistikoa eta soziala,” aipatu du Mario Lopezek, Fagor Industrialeko Zuzendari Orokorrak. *“Guretzat ohorea da sari garrantzitsu hau ematea, eta David Arellanori ematea,*



ONNERA GROUP



Fagor Industriali buruz

Fagor Industrial, Mondragon kooperatibako kidea, ostalaritzarako ekipamenduetan, sukaldaritza kolektiboan eta garbitegian liderra da. 60 urtetik gorako esperientzia du, eta ostalariaren egunerokoa eta beharrak ondo ezagutzen ditu; horregatik, Fagor Industrialek marka bereko produktuen gama integrala eskaintzen du. Fagor Industrial nazioarteko ONNERA Group enpresataldeko kide da, mundu osoan 9 lantegi eta 2.000 langile baino gehiago dituen taldea.

Informazio gehiagorako edo elkarrizketak kudeatzeko, jarri harremanetan:

LEWIS

Marina Obrero / Nuria Mañá

FagorSpain@teamlewis.com

917 701 516



ONNERA GROUP



Together we evolve

www.fagorindustrial.com